

Pili Yoldi

KAZETARIA

Inbidia

Inbidiaz begiratu zioten Iruñeari 2008an kanpotik etorritako arkitetekoek. Inbidiaz, Arga ibaiak Iruñeko Arantzadi aldean egiten duen meandrea eta bertan mantendutako baratzak, ertzak, bizia eta paisaia ezagutzerakoan. Parke Natural izendatutako gunerako Ideia-lehiaketan parte hartu behar zuten Alemania, Frantzia, Portugal edota Kataluniatik etorritako urbanista adituak ziren, Udalak deituta, eta gutxitan ikusitako miraria zela esanez goraiatu zuten hemengo.

Inbidiagatik edo auskalo zergatik, handik bi urtera martxan jarrita zeukan UPNko taldeak –Barcina alkatea buru zuela– Arantzadi urbanizatzeako plan berria. Betidanik baratzeek izan duten azalerako parte handi bat –130.000 m²tik 85.000– desagertu egingo dira, uholde-baso berria eta hiri-lorategi arruntak landatzeko. Egun dauden 35 eraikinetatik, hiru besterik ez dira geldituko, eta beste berri batzuk egingo dira bertan Nafarroako Nekazaritza Museoa irekitzeko. Parkearen lehendabiziko obra handia errepide berri bat izan da, Nafarroako Kutxak bertan duen eraikinari eta aparkalekuari irtenbidea emateko.

Zenbait ahots altxatu dira zentzugabekeria honen kontra –dauden baratzeak desegitea bara-



JOSU SANTESEBAN

tzeen museoa egiteko, alegia–, eta proposamen berri bat aurkeztu dute, gure aurrean meandrea asfaltoz eta porlanez betetzen ari den bitartean. Udaletik, gaia birpentsatu edo berrikusteko inongo keinu, inongo asmorik ez.

Orain, inbidia guk daukagu: Europari begiratzen diogu eta Frantzian *Terres en villes*, Holandako Ranstad, Milanen, Londresen... hirietan baratzeak berreskuratzearen aldeko ekimenak nonahi ikusten ditugu modan eta martxan. Gertuago, Bartzelonan, Baix Llobregateko nekazaritza parkea sortu dute, gune natural bezala baina nekazaritzarako erabilera bultzatzen dute eta, horretaz gain, ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarrengana gerturatu nahi ditu, kalitatezko eta bertako elikaduran oinarrituta. Gurean ere, Gasteizen, urutiago joan gabe, hiri-baratzeak mantendu, baloratu eta sortu egingo dira. Iruñean, ordea, kanpokoek miresten digutena guk desegin, nekazariak kaleratu eta museoan sartzen ditugu.

Berriz ere, modernitateari bizkarra eman eta azken furgoian sartzen gaituzte. Bekatu larria omen da inbidia, baina hemen egiten ari direna oraindik ere larriagoa. ■



Gurean ere, Gasteizen, urutiago joan gabe, hiri-baratzeak mantendu, baloratu eta sortu egingo dira. Iruñean, ordea, kanpokoek miresten digutena guk desegin, nekazariak kaleratu eta museoan sartzen ditugu

TXANDAN

Juanra Makuso



Badirudi, XXI. mendean idatzizkoak murrizten ari direla paperezko euskarran. Paperak galdu egin duela ustez darabilenen guda partikularra. Aurrez aurrekoa eskatzen du paperak, eta ez hori bakarrik, bera lantzantzea ere eskatzen du, gogo-kidetasunezko harremana. Azken finean, gertutasuna, ukitu dai-tekeena, gustukoa dugu, agian ukimenak baduelako sentsazio ezberdin bat bertualtasunaren aurrean. Nire egunerokoan, papera/pantaila eztabaida, lehia, hurbileko sentimendua bihurtzen ari zait. Nire jardueran esan dezaket pantaila nagusi-

Paperean

tzen ari dela, idatzizkoan bai behintzat; beste kontu bat da irakurketarena, oraindik parez pare baitaude. Baina ez dakit, ez naiz oso ziur nire inguruan hori horrela denik. Aste honetan, lan egiten dudan institutuan, anekdota bat bizitzea suertatu zait. Euskarako irakasleak lan oso dotorea erakutsi dit, gaur egun omen den teknologia berrien adibide bat. Gaia XX. mendeko euskal poesia da. Ikasleekin arbela digitalean lantzen du. Poeten poemak beraien ahotsekin entzuten dituzte. Ez dago aitzakiarik. Baina ikasteko, ikasleek, paperean nahi dute. ■

